



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
*Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
*Dirección de Salud Pública
y Adicciones*

HAURTZAINDEGIETAKO ETA HAUR-ESKOLETAKO JARDUERARA ITZULTZEARI BURUZKO OSASUN GOMENDIOAK (0-3 URTE)

GASTEIZEN, 2020KO EKAINAREN 8AN

1. SARRERA

COVID-19aren agerraldiaren bilakaerak sortutako egoera dela-eta, ezohiko euste-neurriak hartu behar izan dira, Euskadiko ikastetxeetan aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera bertan behera uztea, besteak beste.

Konfinamenduaren ondoren, egoera epidemiologikoaren bilakaerak Deseskalatze Plana abian jartzea ekarri du, mugikortasuna eta kontaktu soziala murrizteko ezohiko neurriak pixkanaka kentzen joateko.

Gomendioen dokumentu honetan, antolaketaren zein higiearen inguruko neurriak eta neurri teknikoak jaso dira, haurtzaindegietan bakoitzaren berezitasunetara egokitu beharrekoak.

Langile guztien erantzukizuna da COVID-19aren transmisioa kontrolatzeko eta murrizteko ezarritako babes-neurriak zorrotz betetzen laguntzea.

2. XEDEA

Prebentzio-neurri orokorrak ezartzea, haurtzaindegietara eta haur-eskoletara itzultzean COVID-19aren transmisioa minimizatzeko eta kontrolatzeko.

3. ERANTZUKIZUNAK

Inplikaturako pertsonen, gurasoen, legezko tutoreen eta profesionalen erantzukizuna da haurtzaindegietan COVID-19aren transmisioa kontrolatzeko eta murrizteko babes-neurriak betetzen laguntzea.

4. PREBENTZIO-NEURRIAK

Haurtzaindegietan eta haur-eskoletan, beste zentro eta jarduerak batzuetan bezala, arnas tanten bidezko zuzeneko transmisioan zein kutsatutako azalerak ukitzearen ondoriozko zeharkako transmisioan jardun behar da, COVID-19aren kutsatzea prebenitzeko.

Horretarako, SARS-CoV-2aren transmisioa nabarmen murrizten lagun dezaketen zenbait ekintza daude. Ekintza horiek bost ildotan bil daitezke:

1. Egon daitezkeen COVID-19 kasuekiko kontaktua saihesteko ekintzak
2. Eskuak maiz garbitzea
3. Arnas-higiene ona ziurtatzea
4. Gehien ukitzen diren azalerak maiz garbitu eta desinfektatzea
5. Kontaktuak eta harremanak minimizatzea. Ikasgelen diseinua eta egutegia aldatzea

4.1.- Antolaketaren inguruko neurriak

Langileei eta gurasoei COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituen inork ez duela zentzura joan behar jakinarazten zaiela ziurtatzea.

COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak edo kasu horiekin kontaktu estuak dituztenak haurtzaindegira edo haur-eskolara joaten ez direla ziurtatzea.

Gurasoei eta zentroko langileei informazioa ematen zaiela eta indikazio hau betetzen dutela ziurtatzea.

Komeni da gurasoei eta langileei iritsi orduko sistematikoki galdetzea COVID-19aren sintomarik agertu den.

COVID-19aren kasu susmagarriei erantzuteko protokoloa prestatzea

Adingabe batek gaixotasunaren sintomak dituela susmatzen bada (sukarra, eztula, arnasteko zailtasuna, ondoez orokorra...), familiari jakinarazi behar zaio, adingabea jaso dezan. Bien bitartean, gainerako taldekideengandik bereizita egongo da, aireztatzeko eta sortutako materiala eta hondakinak biltzeko baldintza egokiak dituen gela batean. Adingabearekin kontaktuan dagoen pertsona helduak maskara kirurgikoa erabiliko du.

Familia harremanetan jarriko da bere osasun zentroarekin, eta bertan baloratuko da egoera.

Ikastetxeko langileek gaixotasunaren sintomak badituzte, etxera joan beharko dute eta gomendio berberak bete.

Langileak eta ikasleak talde txikitan mantentzea

Taldeek ahalik eta txikienak izan behar dute, eta egonkorrak izan daitezen saiatu behar da, hau da, taldekideak, haurrak zein zaintzaileak, beti berdinak izan daitezen.

Taldeen arteko distantzia fisikoa

Zaila denez hurrek pertsonen arteko 2 metroko distantzia gordetzea, garrantzitsua da haur-taldeen eta langileen arteko kontaktua beste modu batera murriztea. Ondorengoak ziurtatu beharko dira:

- Taldeen arteko segurtasun-distantzia gordetzea
- Ahal den neurrian talde bakoitzak instalazioaren eremu bera erabiltzea egun osoan
- Objektuak, jostailuak eta abar partekatzeko aukera txikitzea
- Partekatzen dituzten objektuak eta jostailuak taldeen erabileren artean garbitzea
- Otorduetan ere taldeak bereizita egotea

Gurasoen eta zaintzaileen arteko zuzeneko kontaktua murriztea

Haurrak eraman eta jasotzean kontaktu horiek gutxitzea, ordutegiak, txandak eta abar zabalduz.

Funtsezkoak ez diren langileak zentrori sar daitezen saihestea

Esku-garbitzea eta arnas-higienea

Ziurtatu behar da ura eta xaboia dituzten konketak daudela, bai haurrentzat bai langileentzat, eta gel hidroalkoholikoak langileentzat. Gel hidroalkoholikoak haurren eskura ez egotea ziurtatuko da.

Komeni da eskuak maiz garbitzea, eta, bereziki, iristean, ezul egin ondoren, zintz egin ondoren, otordu bakoitzaren aurretik, komunera joan ondoren eta nabarmen zikinak badaude.

Langileek adingabeen eskuen garbiketa gainbegiratuko dute.

Ezul edo doministiku egitean, ahoa besaurrearekin edo paperezko zapi batekin estaliko da, eta segituan botako da.

Paperontziak eskura izatea ziurtatuko da, ahal dela pedala dutenak, erabili eta botatzeko materiala (paperezko zapiak...) behar bezala botatzeko.

Jostailuak, beharrezkoak ez diren objektuak eta garbitzeko zailak diren itemak kentzea

Justifikatutako salbuespenetan izan ezik, haurrek etxetik haurtzaindegira/ikastetxera objektuak eramatea saihestea.

4.2.- Garbiketaren eta desinfekzioaren inguruko prebentzio-neurriak

Garbiketa-lanak areagotzea

Instalazioak maiz garbitu eta desinfektatuko dira, Osasun sailburuaren 2020ko apirilaren 2ko Agindua, SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak eragindako pandemia dela eta gainazalak garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak eta bestelako higiene-neurriak hartzen dituenak, eta agindu horren jarraibide teknikoak kontuan hartuta.

<https://www.euskadi.eus/normativa-de-medidas-excepcionales-adoptadas-por-el-nuevo-coronavirus-covid-19/web01-a2korona/es/>

Haurrek eta langileek maizago ukitzen dituzten azalerak (jostailuak, liburuak, ateak, komunak, etengailuak, zoru batzuk...) ohi baino maizago garbitzen eta desinfektatzen direla ziurtatuko da, bai eta beste talde batek erabili aurretik ere.

Erabili eta botatzeko material espezifikoak duten ontziak, zentro osoan zehar banatuta daudenak, maiz hustuko dira eta garbi mantenduko dira beti.

Pixoihalak aldatu ondoren, garbitu eta desinfektatu egingo dira aldagailuak.

Aireztatzea

Lekuen aireztatze natural eta mekanikoa areagotuko da, barruko airea berritzen laguntzeko.

Arropa-garbitzea

Erabilera pertsonalekoak ez badira, egunero aldatuko dira siestetan erabilitako maindireak eta burkoak. Arropa guztia tenperatura altuan garbituko da.

Ahal dela, egunero tenperatura altuan garbitzen den arropa erabiliko dute langileek.